

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Félix Palomero, Baluarte Fundazioko kudeatzaileak, ez du kargua berriz hartuko, Espainiako Abesbatza Nazionalen eta Orkestra Zuzendaritza Teknikoko ardura hartzeko

*Fundazioarekin duen kontratua amaitu ostean, irailaren 1ean lehiaketa publikoz hautatuko den zuzendari kudeatzaile berriak ordezkatzeko du*

Asteartea, 2019.eko martxoak 26

Baluarte Fundazioak datozen egunotan erakundearen zuzendaritza kudeaketa kargua hartuko duen pertsona aukeratzeko prozesuari ekingo dio, egungo zuzendariak Félix Palomero, Espainiako Abesbatza Nazionalen eta Orkestra Zuzendaritza Teknikoko kargua hartuko baitu eta hortaz ez du egun duen kargua berrituko. Palomerok Baluarte Fundazioaren karguan jararituko du abuztuaren 31n kontratua amaitu arte.

Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak Baluarte Fundazioaren patronatoari eskatuko dio fundazioaren kudeaketa kargua betetzeko aukeraketa prozesua hasteko beharra, prozesua

lehenebailehen egin dadin kargudun berriak irailaren 1ean bere funtzioak bete ditzan. Aukeraketa berriz ere lehiaketa publikoz egingen da.

Félix Palomero Musika eta Arte Eszenikoen Institutu Nazionalak Espainiako Orkestra eta Abesbatzen eta Sortze Artistikoko Zentroko (INAEM) zuzendaritza teknikoa betetzeko izendatu du, Kultura eta Kirol Ministeritzari atxikitako entitate autonomoa da INAEM. Entitateak bere helburuen artean ditu arte eszenikoen eta musikaren promozioa, babesa eta difusioa edozein delarik ere aurkezteko era, eta horretarako, besteak beste, Espainiako Orkestra eta nazioko Abesbatzen zentroa ditu.

Palomero Baluarte Fundazioaren kudeaketaren ardura du 2016ko irailaren 1etik. Kargua Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirola eta Gazteria



Félix Palomero, Baluarte Fundazioko egungo zuzendari kudeatzailea.

Departamentuak egindako lehiaketa publikoan aukeratua izan ostean hartu zuen.